



VII. Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Artiumeko Liburutegi eta Dokumentazio-Zentroa

2014ko urriaren 29an eta 30ean. Artium Museoa
Informazio-zerbitzuen lidergoa XXI. mendean

Nahasmenduzko denboretan elkarlanean aritzea

Hitzaldia: Carmen Bouzas Caamaño

Liburutegien arteko Lankidetzarako Kontseilua

Nahasmenduzko denboretan elkarlanean aritzea

Laburpena

Lankidetzan aukera egoki bat izan daiteke, pertsonen eta erakundeen arteko eginahalak bateratuz, xede jakin bat lortu ahal izateko. Lankidetzan jarduteko modu hau ez da berria liburutegien munduan, baina Espainian Liburutegien Lankidetzan Batzordearen sorrerak inflexio-puntu bat suposatu du lankidetzaren historian. Erakunde honen berrikuntza aipagarrienetako bat da politikarien eta teknikarien arteko elkarlana bultzatzen dela eta Estatuko administrazio desberdinek, Ministerioak, autonomia-elkargoek eta erakunde lokalek sorturiko eta koordinaturiko politiken garapena ere sustatzen dela, areago gainera elkarte profesional nagusiak elkartu zaizkielarik. Batzordeak sei urte daramatza lanean, eta dagoeneko badu lan-egitura sendo bat, zeinean islatzen baitira liburutegi-sistematan diren liburutegi mota desberdinak: unibertsitarioak, publikoak, eskolakoak, nazionalak eta eskualdeetakoak, eta, azkenik, lan honetan bereziki aztertzen diren liburutegi espezializatuak; era berean, denbora honetan hainbat proiektu garatu dira, zalantzarik gabe, liburuzainaren eginkizunari alderdi guztietatik lagunduko diotenak, eta, hortaz, gure gizarteko jakintzarako sarbidea erraztuko diotenak. Panorama honetan, lehen ikuspegian, Espainiako liburutegiak oso egoera desberdinetan daudela konturatzen gara. Liburutegi unibertsitarioak guztiz egituratuak daude unibertsitateen egituraren baitan, publikoak ondo definituak beren baliabideen, zerbitzuen eta neurriaren arabera, eskolakoak eskubide propioz sartzeko sistema, eta beste horrenbeste nazionalak, ezaugarri eta eginkizun ondo zehaztuekin, sistema desberdinen buruak izanik. Huts egiteko beldurrik gabe esan genezake liburutegi espezializatuak direla ibilbide luzeenaren premia dutenak; izan ere, gaien heterogeneitatea, tipologia desberdinak eta mendekotasun organiko bereziak direla medio, kolektibo bereziki konplikatu gertatzen dira analisi eta azterketarako. Bestalde, erronka handia eta guztiz interesgarria suposatzen dute liburutegi espezializatuen Batzorde Teknikoarentzat sare indartsuetan eratutako liburutegi espezializatuen esperientziak, bertako profesionalen kualifikazio maila altuak eta tresna berriak baliatzeko duten malgutasuna.

Lankidetzaren denbora nahasietan

Joan den mendeko hirurogeita hamarretan urrats handi bat egin zuen liburutegien munduak, elkarlanaren bidez jakintzaren sarbide unibertsala eskuratze aldera. Aurreramentu horrek bultzada handi bat izan zuen gero garapen teknologikoarekin, eta, hala, liburutegi-kudeaketaren informatizazioa eta Interneten zabalkundea etorri ziren.

Inflexio-puntu hori urrats bat besterik ez da liburutegiek egindako bide luzean, zeinean normalizazioak lagundu baitzion gure lanari eta erraztu egin baitzuen aldaketa teknologikoa. Teknologia horri esker gure liburutegietatik atera gaitzke eta, hala, talde baten parte gara orain, zeinak, eginahalak bateratuz, bere helburuak modu eraginkorragoan lortzen baititu, katalogo kolektiboak edo partzuergo-erosketak eginez adibide baterako. Lankidetzak harreman horizontalak sustatzen ditu eta, gainera, borondate argi bat adierazten du bitartekoak eta helburuak partekatzeke, informazioa ugalduta eta egunero-egunero tresna berriak garatu arren, gure lana egiteko eskura dauzkagun baliabideak abiada berean hazten ez diren mundu batean.

Elkarlana, beraz, ez da berria gure lanean; baina ekainaren 22ko irakurketaren, liburuaren eta liburutegien 10/2007 Legean agertu zen aurreneko aldiz, 14.2.b artikuluan, hura garatzeko ardura izango zuen organo berezi baten sorreraren berri: Liburutegien Lankidetzaren Batzordea zen organo hori, eta, hasietatik bertatik, Liburutegien Espainiako Sistemaren parte izatera igaro zen. Lege horren 15. artikulua osorik eskaintzen zaio liburutegien lankidetzari, eta horrek agerian uzten du legegileek zer nolako garrantzia eman nahi dioten.

Liburutegien Lankidetzaren Batzordearen sorrerak (hemendik aurrera LLB), indarrean dagoen irakurketaren, liburuaren eta liburutegien legearen baitan, azaroaren 30eko 1573/2007 Errege Dekretua ekarri zuen, non garatzen baitira batzordearen helburuak, osaketa eta funtzionatzeko modua.


Sarreran, araudiak gure herrialdeko eskumenak berrikusten ditu, liburutegien alorrean beti ere, administrazio guztiak gogoan harturik: zentrala, autonomikoa eta lokala. Panorama konplexu hau dela medio, beharrezkoa da administrazioen arteko organo kolegiatu bat sortzea, administrazio publikoen arteko liburutegien lankidetzaren bideratzeko xedez, liburutegien lankidetzaren hori era honetan ulertuz: «Administrazio publikoen eta era guztietako erakunde pribatuaren mendeko diren liburutegien eta liburutegi-sistemen artean borondatez eratzen diren loturak, informazioa, ideiak, zerbitzuak, jakintza espezializatuak eta bitartekoak trukatzeko, baliabideak optimizatzeko eta liburutegi-zerbitzuak garatzeko xedez». LLBk martxan jarriko ditu eta ebaluatuko ditu xede nagusia liburutegien eta liburutegien zerbitzuen garapena eta egoeraren hobekuntza areagotzea eta sustatzea duten lankidetzaren planak.

LLBren osaketaren berrikuntza bat da, organo berean bateratzen dela liburutegien eta politikarien elkarlana, eta administrazio guztien eta era guztietako liburutegien ordezkariek biltzen dituela. Hona zein diren organo hau osatzen dutenak: Lehendakaria, Lehendakariordea eta administrazio orokorraren, autonomikoen eta lokalen organismoen ordezkariek diren Bozeramaileak; badira halaber Unibertsitateen Batzordeko ordezkariek, eta baita elkarte profesionalenak ere.

Batzordearen eginkizunak dira:

1. Titulartasun publikoa duten liburutegi-sistemak Liburutegien Espainiako Sisteman sartzea bultzatzea, eta liburutegien eta liburutegi-sareen mota desberdinak sustatzea, haien garapen espezifikoak indartuz eta haien arteko lankidetzak sustatuz.
2. Liburutegien eta liburutegien zerbitzuen egoeraren garapena eta hobekuntza areagotzeko plan bereziak eratzea, nola diren liburutegietan oinarritutako zerbitzuak ematea edo Espainiako estatuko hizkuntza-ugaritasuna gogoan hartzea.
3. Liburutegien alorreko trukea eta trebakuntza profesionala bultzatzea eta sustatzea.
4. Aginduz jakinaraztea espainiar liburutegi guztiei dagozkien legezko eta araubidezko xedapenak.
5. Gizartearentzat onuragarriak izan daitezkeen lankidetzako proiektuak sustatzea.
6. Kultura eta Hezkuntzako sektorekako konferentziak eta Espainiako Unibertsitate Errektoreen Konferentziak gomendatzen dituzten era guztietako ekimenak, baldin liburutegiekin lotura badute, prestatzea, aztertzea eta garatzea.

LLBren osaketa



Liburutegien Lankidetzak Batzordearen osaketa Lantalde Aholkularia eta Lantalde Estrategikoak erantsiz biribiltzen da, zeinek Batzordearen eginkizunak arrakastaz osatzen lagundu baitute.

2013-2015 PLAN ESTRATEGIKOA

LLB Jacan sortu zen 2008. urtearen martxoan, eta bost urteko lanaren ondoren, proiektu honen garapenaren analisi bat egin zen. Analisi horren ondorioz, Plan estrategiko bat eratu zen, organo guztiek jarraitu beharreko jardunbideak markatzen dituen eta errentagarriak izan daitezten egiten ditugun eginahalei koherentzia ematen diena. Plan estrategikoa batzordeko organoetako kideek osatu zuten, eta baita liburutegien munduan ospe aitortua duten profesionalak ere.

Plana onetsi zen arte eskuraturiko lorpenen artean daude *Espainiako liburutegi espezializatuen diagnosi-txostena; Eskola-liburutegien erreferentzia-esparruko dokumentua; Espainiar liburutegiak zenbakietan webgunea; Liburutegi publikoen informazio-alfabetatze baten aldera txostena*; eta lehen idatzaldi adostu baten prestaketa, zeina oinarri gisa erabili baitzen uztailaren 29ko 223/2011 Legea idazteko, lege-gordailuarena.

Plan estrategikoa hiru lan-ildo estrategiko ezarriz osatu zen, bakoitzak bere xede orokorrak zituela. Aurrenekoak eta bigarrenak liburutegiek gizartean dituzten lan-ildoak garatzen dituzte, eta hirugarrenean, *selfie* bat eginez, LLB eraginkorrago eta ikusgaiago baten alde egiten du Batzordeak.

1. Ildo estrategikoa:

1. **Liburutegiak gizartean sustatzea eta bultzatzea:** LLB, administrazio guztiak eta era guztietako liburutegiak bateratzen dituen organoa denez gero, guztiz leku egokia izan daiteke liburutegiek gizartean duten garrantzia zabaltzen laguntzeko.

Helburu orokorrak:

- 1.1. Liburutegiek gizartean oro har duten baliagarritasunaren pertzepzioa hobetzea. Beharrezkoa da liburutegietatik onura zuzena ateratzen duten gizataldeen muga gainditzea, eta gizarte osora zabaltzea liburutegien baliagarritasunaren pertzepzioa.
- 1.2. Zerbitzuen eskaintza erakargarri bat sustatzea, gizartean eragin handia izaten lagundu dezakeena.
- 1.3. Prestakuntza erabiltzaileei zabaltzea, haien proaktibotasuna sustatuz.

2. Ildo estrategikoa:

2. **Liburutegi-zerbitzuen iraunkortasuna informazioaren eta gizartean inguru berrian:**

Liburutegiek gizartearen egoera berrian duten papera eta ahalmena planteatu behar dute; xede horretara heltzeko, alde batetik, bete behar dituzten funtzioen analisi etengabea egin behar da, eta, bestetik, gizarteari gaurko premien aurrean eskaintzen zaion beste erantzun bat direlakoan ulertu behar dira liburutegiak. Horretarako, profesional onak behar dira, beren gaitasunak eta trebetasunak liburutegiaren premia eta eginkizun berriei egokitzen dizkietenak eta izendaturiko baliabideak trebetasunez kudeatzen dituztenak.

Helburu orokorrak:

- 2.1. Liburutegiari buruzko prospektiba-ikasketak bultzatzea, inguru ekonomiko, sozial eta digital berrian.
- 2.2. Liburutegien eta inplikaturiko beste eragileen arteko elkarlana eta aliantzen sorrera bultzatzea, baliabideen optimizazioa lortze aldera.
- 2.3. Zerbitzu digitalen eta haien sarbidearen garapena erraztea, eta, era berean, zaintza digitala sustatzea.
- 2.4. Liburutegietako profesionalen gaitasunen bilakabidea sustatzea, profil desberdinei egokituriko prestakuntza emanez.

3. ildo estrategikoa:

3. Batzordearen funtzionamenduaren bilakaera:

Bost urteko esperientziak eginahalak koordinatzeko abantailak eskaintzen ditu, baina, aldi berean, organoaren ezagutza hobea ere eskaintzen du, baita eginahalak fokalizatzeko beharraren pertzepzioa ere, emaitza hobekak eskuratzeko aldera.

Helburu orokorrak:

- 3.1. Batzordearen organoen papera eta funtzionamendua erronka berrietara egokitzea. Lantaldeak zatitu egin dira; alde batetik, Plan estrategikoaren helburu eta proiektuen garapenera bideratuak daudenak, eta, bestetik, LLBrentzat eta LLBren misioarentzat interes iraunkorreko jarduerak egiten dituztenak. Indartu egingo da batzorde teknikoaren papera eta Batzorde Iraunkorraren funtzioa berresten da liburutegien bilakaeraz eta joerez kanpoko ikuspegia eskain dezakeen Talde Aholkulari baten sorreraren bitartez.
- 3.2. LLBren eta haren jardueren jarraipena, ebaluazioa eta komunikazioa hobetzea.

2013KO PROIEKTUAK PLAN ESTRATEGIKOAREN BAITAN

2020 prospektiba: datozen hamar urteetan liburutegietan gehiena aldatuko diren hamar alorrak.

Proiektu hau LLB 2013-2015ko I. Plan estrategikoaren bigarren ildoari dagokio, zeina definitzen baita liburutegi-zerbitzuen iraunkortasun gisa, informazioaren eta gizartean inguru berrian. 2020. urtea arte liburutegi mota desberdinei gehiena eragingo dieten hamar aldaketa eta gorabeherak planteatzen ditu.

1. Liburutegien kudeaketa malgutu egin beharko da, eta liburutegien ekimenak hobeto txertatu beharko dira zerbitzatzen dituzten erakundeen xedeetan. Liburuzainek kudeaketa-trebetasun jakinak izan beharko dituzte, zerbitzuen eskaintza ahalik eta gehiena malgutze aldera, eta are gehiago kontuan hartzen baldin bada liburutegi gehienak dauden administrazio publikoaren ingurune zurruna.

Erronka bereziak: Ikerketa-liburutegiek, unibertsitateak eta espezializatuek bereziki, liburuzain *txertatu*en irudia beharko dute indartu, eta hauek erakundeko espezialisten aldamenean parte hartu beharko dute ekiten diren proiektuetan.

2. Lankidetzaren areagotuko da: lankidetzaren eta elkarlan handiago batek handitu egingo du liburutegiak erakundearen barruan eta kanpoan duen eginkizuna.

Erronka bereziak: Liburutegi guztiek behar lukete sare bat osatu, eta elkarrekin koordinaturik egon, espezialitatearen eta gaiaren arabera.

Lankidetzaren bestelako erakundeetara ere zabaldu behar da, baldin helburuak komunak badira, nola diren artxiboak, museoak, elkarte akademikoak, etab.

3. Baliabide publikoak ez dira oso ugariak izango, eta liburutegiek dirua aurrezteko eta finantzaziorako estrategia berriak aurkitu eta dirua aurrezteko eta baliabideak partekatzeko mekanismoak ugaltzea beharko dituzte, finantzaziorako bide alternatiboak esploratuz eta zerbitzuak ematerakoan erabiltzailearen parte hartzea baliatuz.

Erronka bereziak: liburutegi espezializatuek erne beharko dute egon, nolako Open Access mota berriak dauden.

4. Profesionalek profil malgu eta aldakorak izan beharko dituzte, eta liburutegiek era askotako ezaguerak dituzten langileen premia izango dute; prestakuntza aurrerantzean ez da denentzat bera izango.

Erronka bereziak: profesioak heziketa-zentroekin dituen harremanak sendotzea eta eskolako liburuzainaren prestakuntza-profila sortzea.

5. Liburutegiak komunitateak sortzeko eginkizuna sendotu beharko dute, gizarte-kohesioaz hornitu eta hiritarrek informazioaren sarbidean aukera berak dituztela ziurtatu.

Erronka bereziak: liburutegien ordutegiak berrikustea, sarbidea errazteko; sarbide irekiko liburutegi digitalak sortzea, eta liburutegia erantzukizun kolektiboa delako kontzeptua zabaltzea.

6. Agora-liburutegiak edo liburutegiak hirugarren toki gisa. Liburutegia plaza irekia da gero eta gehiago, familia eta lana ez bezalako hirugarren espazioa. Sorkuntzarako tokia da, teknologia berriak esperimendatzeko tokia edo prestakuntza maila desberdineko pertsonen topagunea.

Erronka bereziak: jarduerak garatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko espazioak sortzea; liburutegietako langileen jarrerak berriztatzea, beren eginkizunen ikusmolde ireki baten aldera berbideratuz.

7. Liburutegietako espazioak dauden bezala jarraituko dute oraingoz, baina malguak, abegikorak eta sozialak izango dira. Premia berriak eta aurreramentu teknologikoak gogoan izanik, egokitu egin beharko dira, lantaldean jarduteko altzariekin eta moduluko instalazioekin, 3D inprimagailuekin, coworking-lekuekin...

Erronka bereziak: funtzio anitzeko espazioak sortzea.

8. Heziketa, ikasketa eta trebetasunak liburutegien misioaren funtsezko elementuak izango dira: ekintzaileei, ETE eta lan-bilaketei laguntzea, lan-elkarrizketei erantzuteko moduz mintegiak antolatzea, etab.

Erronka bereziak: informazio-alfabetizazioa liburutegiaren beste zerbitzu baten gisara normalizatzea, eta liburutegi publikoek eta unibertsitateek ekintzaileei eta langabetuei emandako laguntza zabaltzea.

9. Errealitate digital bati egokitzen zaizkien zerbitzuak. Erabiltzaileei informazioaren sarbidea segurtatzea eta zerbitzu berriak sortzea. Tresna berriak deskubritzea bestelako gailuetan erabili ahal izateko, irakasleen ikerketa-karrera eta produkzioa kudeatzea, bereziki argitalpenei eta ikerlanen biltegi irekiari dagokienez. *Webmaster* edo *community manager* eginkizunak bereganatzea.

Erronka bereziak: liburutegiak bereiziko dituzten zerbitzu pertsonalizatuak mantentzea eta komunikazio- eta gizarte-sareen erabilera-ekintzak indartzea.

10. Estrategia berritzaileak iturri eta bilduma hibridoak kudeatzeko: formatu digitalek arduraz bideratu beharreko jabetza-eskubideak eta informaziorako sarbidea kudeatzeko premia sortzen dute. Era berean, gogoan hartu beharko dira zaintza digitala eta e-learning edota MOOC ikastaroak (on line ikastaro irekiak).

Erronka bereziak: Open Access-en aldeko eta liburu elektronikoaren maileguaren aldeko apustua, eta erakundearen arteko koordinazioaren hobekuntza zaintza digitalari begira.

Liburutegiek gizartean duten eragin sozioekonomikoaren azterketa.

Azterketa hau Plan estrategikoaren lehen ildoaren garapenaren baitan egin da. Gaur bizi dugun krisi ekonomikoaren testuinguruak ageriko ondorioak ditu gure zerbitzuen finantziario publikoan. Gure inbertsioen eraginkortasuna handitzeko premia sortzen da, eta, aldi berean, inbertsio horiek egokiak direla erakutsi behar zaio gizarteari.

Berriz ere, mundu anglosaxoian aztertu da lehendabizi tradizionalki merkatuan sartuta ez dauden sektoreen eragin sozioekonomikoa. Azterlan hauek era askotakoak dira, eta ez dute terminologia eta metodologia homogeenorik. Ezaugarri nagusia dute lurralde-eremu jakin batean zentratzea liburutegi talde jakin batentzat, edo sare edo eskualde batentzat, edo liburutegi mota jakin batentzat: publikoak, unibertsitateak... Metodologiari dagokionez, ROI erabiltzen da, *Return on Investment* ingelesez (inbertsioaren itzulera), eta SROI, *Social Return on Investment* (inbertsioaren itzulera soziala). Metodologia honen bidez, balorazio ekonomikoak egin litezke, finantzakoak huts-hutsik diren terminoak gaindituz, ingurumenaren eta gizartean duten eragina gogoan harturik.

Liburutegien ondorio ekonomikoak ikuspegi bikoitz batetik neurtzen dira: alde batetik, hiriko, eskualdeko eta inguru zabaleko ekonomietan dituzten ondorio zuzenak aztertzen dira, zergen bidez, Gizarte Segurantzari egindako ekarpenen bidez, soldaten bidez, etab.; eta, bestetik, zeharkako ondorioak neurtzen dira, hau da, erabiltzaileek jasotzen/erabiltzen dituzten zerbitzuak erosi behar balituzkete, ordaindu beharko zuten edo ordaintzeko prest egongo liratekeenaren diru-estimazioa, zeina adierazleen edo ratioen bidez kalkulatu baita. Puntu honetan sartzen da jokoan SROI delakoa, liburutegitik gizarte-jokamolde arduratsu bat sustatzeko, beste hizkuntzetako eskaerak asetzeko edo bertako kultura eta agerraldi artistikoak babesteko eginahala balioetsiz.

Liburutegi espezializatuei dagokienez, CSICkoek iparramerikar proiektu batean parte hartu dute, liburutegietan eta bilduma zientifikoetan inbertitzearen onurei buruz. Liburutegi honek, bere webgunean, «liburutegiek emandako zerbitzuen balio ekonomikoaren kalkulatuak» bat dauka (<http://bibliotecas.csic.es/calculador>), zeina Massachusetts Library Association erakundeak proposaturiko tresna baten egokitzapena baita.

Lantaldeak egin duen azterketan, bada adierazle-mapa bat hainbat ikuspegi baliatzen dituen: ekonomia, gizarte, berrikuntza eta garapena, eta giza baliabideak.

Liburutegi Espezializatuen Lankidetzako Batzorde Teknikoak (hemendik aurrera, Liburutegi Espezializatuen LBT), ikusi zuen, adierazle hauen lehen ikustaldi batean, liburutegi espezializatuek ez zutela ekonomia lokaletan ondoriorik. Lehen aipatu diren Gizarte Segurantzari egindako ekarpenez, zergez eta abarrez gainera, liburutegi espezializatuen sare handiek –osasunaren arlokoak adibidez– banatzaile handiekin adosturiko erosketen bidez eskuratzen dute beren baliabideen parte handi bat; baina badira berebat beste liburutegi espezializatu batzuk ere beren funts bibliografikoen parte bat beren inguru geografikoko merkataritza-eremuan erosten dituztenak, eta, hartara, Batzordeak zentzu horretako zuzenketa bat proposatu zuen.

Azterlan hau laster da bideratzen hastekoa, Nafarroan garatuko duen proiektu pilotu batekin. Probintzia bakarrekoa delako hautatu zen erkidego hau, eta, hortaz, lanean hasteko errazagoa. LBTko Nafarroako ordezkariak, Miren Vidaurrek, parte hartuko du azterlanaren jarraipenean.

Era berean, aurreikusita dago talde teknologiko batek martxan jarriko duela plataforma komun dezentralizatu bat datuen kudeaketa eta elikadurarako, eta eguneratze etengabeko, proiektuaren garapenerako funtsezko euskarri gisa.

Liburu elektronikoaren maileguaren eredu iraunkorra

Liburu elektronikoa ekarri da liburutegi publikoetara, eta horren zergatia da kalitatezko edukien legezko kontsumoa, formatu elektronikoetan, nahi dela sustatu herritarren artean, gizarteak eskatzen dituen zerbitzu berritzaileak nahi direla bultzatu eta gizarte-sektore jakin batzuetara irakurketa zabaldu, teknologietara ohituak dauden gazteen artean, esate baterako. eBiblio proiektuak premia horiei nahi die erantzun. 2014ko irailean aurkeztu zen, eta eskaintza osagarri bat izango du beste hizkuntza ofizial bat duten autonomia-erkidegoetan.

Libranda plataformak irabazi zuen proiektu hau garatzeko lehiaketa.

LLBren barne- eta kanpo-komunikazioaren plana

2013ko planak osatuz, badira Batzordearen funtzionamenduaren eskuliburu bat, organoen lanaren kudeaketa errazten duena, eta barne- eta kanpo-komunikazioaren plan bat, Espainian bideratzen diren liburutegi-lankidetzako ekimenak ezagutarazteko nahiz Batzordearen lanaren zabalkuntzarako tresnen sorkuntzarako xedearekin. Nortasun digital baten sorkuntzak eta garapenak Twitter-eko profil baten eta Facebook-eko beste baten osaketa ekarri zuen; beste tresna batzuk bidean dira, nola diren web-orri berri bat edo erakundeen blog bat. Horren guztiaren xedea da laguntzazko dokumentuak, liburuzainen arteko esperientziak eta harremanak erraztea, eta liburutegi mota desberdinen arteko elkarlanaren ahalmena agerian jartzea. Denek dute ordezkaritza LLBn.

LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUEN LANKIDETZAKO BATZORDE TEKNIKOA

LEn LBT liburutegi mota honek dituen berezitasunak jasotzeko eta bideratzeko sortu zen. Batzordearen barruan eratu zen, Jacan, 2008. urtean ospatu ziren Liburutegi Lankidetzako Jardunaldietan.

Une hartan, batzordeak honako xede hauek ipini zituen:

- Autonomia Erkidegoetako liburutegien diagnosi-txosten bat garatzea.
- Liburutegi espezializatuen hobekuntzarako proposamenak aztertu eta garatzea.
- Era bateko eta besteko liburutegi espezializatuen arteko lankidetzak bultzatzea.

Liburutegi espezializatuen egoera, elkarlanari dagokionez, ez da homogenoa. Alde batetik, sare eta partzuergoetako lanean tradizio handia duten liburutegiak dira, baina, bestetik, Espainiako liburutegi espezializatuen ezagutza globala edo haien ikusgaitasuna ez da iristen, inondik ere, liburutegi publikoen edo unibertsitarioen sisteman erabiltzen denaren mailara; agian eskola-liburutegien gainetik dago bakarrik, nahiz eta eskola-liburutegiek abantaila bat izan, alegia, erakundeei loturik daudela (irakaskuntzako erakundeei), eta haiek, berriz, gainetik dituzten administrazioen mende daudela.

ESPAINIAKO LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUEN EGOERAREN DIAGNOSI-TXOSTENA

Egoera gogoan izanik, beraz, Batzordeak lehen urratsak egitea erabaki zuen, eta bere kideei eskatu zien liburutegi espezializatuen egoeraren diagnosi-txosten bat egiteko, zeinek bere Autonomia Erkidegoan. Espainiako liburutegi espezializatuak bizi duten egoeraren berri ematen da txosten horretan.

Liburutegiei buruzko legedian, liburutegi espezializatuak ez dute presentzia handirik. Ez dakigu zenbat diren zehatz-mehatz liburutegi espezializatuak, ez baitago errolda oso eta eguneraturik. Datu estatistiko fidagarriak falta dira, bitarteko tekniko gutxi dago, administrazioak ez daude behar den bezala koordinatuak, eta isolamenduak eta ikusgaitasun eskasak osatzen dute panorama.

Ezaugarri positibo gisa, liburutegi hauek dauzkaten liburuen kopuru eta kalitate handia nabarmendu zen, haien gaien ugartasuna, eta, liburutegi bakoitzaren eremuan, adituak diren profesionalak eta erabiltzaileak egotea.

Egoera orokorrak azpiegiturak eta lankidetzako eta integrazioko proiektuak sortzeko aukera eskaintzen du, bai autonomia-erkidego bakoitzean bai Estatuan, eta Liburutegi Espezializatuen LBTaren sorrera da horren froga. Orobat eskatzen da errolda gaurkotuak osatzea eta datu estatistikoak hobetzea, informatikak eskaintzen dituen kudeaketa-tresnak eguneratzea eta era guztietako erabiltzaileei zuzendutako zerbitzuak hobetzea.

Txostenaren ondorioa da, ikusgaitasun maila eskasak erakundeetako arduradunen arretari eragiten diola, eta, hortaz, baita baliabideen esleipenari ere.

LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUEN TIPOLOGIEI BURUZKO TXOSTENA

Batzordea aurrera egiten ari da Espainiako egoeraren azterketan, eta adostu du txosten bat osatuko duela, liburutegi espezializatuen tipologiak jasoko dituen. Liburutegiez dauden definizioetan sakontzea da azken helburua, irizpide bateratuak taxutzeko, eta, era horretan, estatu eta autonomia mailetako erakundeei direktorioak osatzen laguntzeko.

Sailkapena, tipologiaren arabera, honela geratzen da:

- Erljio-erakundeen liburutegiak
- Administrazioaren liburutegiak
- Ikerketa-zentroen liburutegiak
- Elkargo profesionalen liburutegiak
- Enpresa eta merkataritza-konpainien liburutegiak
- Osasun-zentroen liburutegiak
- Artxiboen eta museoen liburutegiak
- Beste liburutegi espezializatu batzuk

Azken sail horretan bada proposamen bat liburutegi espezializaturen batzuk sartzeko, esate baterako, etengabeko prestakuntzako eskolak, bai osasunaren ingurukoak, bai administraziokoak nahiz komunikabideetakoak.

LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUA IZATEKO GUTXIENeko BALDINTZEI BURUZKO TXOSTENA

Liburutegi espezializatuen LBTk dokumentu bat prestatu zuen, liburutegi espezializatu izateko behar diren gutxieneko baldintzak seinatuz. Direktoriok osatzerakoan, sarritan sortu dira zalantzak, ez baitago oso argi zer har daitekeen liburutegi espezializatutzat. Txosten honek zalantza horiek argitzeko balio du, eta direktorio horiek osatzeko ardura duten pertsoneri eta beren liburutegiez arduratu behar duten erakundeetako profesionalei laguntzeko.

Lehendabizi, liburutegi espezializatuaren definizio bat adostu zen:

Liburutegi espezializatuak erakunde publiko nahiz pribatu baten mendeko liburutegia edo dokumentazio-zentroa da, zeinaren funtsek gai jakin bat edo antzeko gai sail bat lantzen baitute, eta helburu nagusia erakundeko langileen erabakimena sustatzea du, edo gai jakin bati buruzko informazioa erraztea, edo zerbitzu teknikoak ematea erakundeko bertako langileen edo kanpoko erabiltzaileen ikerketen garapenerako. Liburutegi espezializatuak sareetan antolatuta egon daitezke, edo elkarlaneko akordioetara heldu daitezke bere erabiltzaileei zerbitzu hobea emateko xedez.

Gutxieneko baldintzak:

a) Liburutegi espezializatuak onarpen esplizitua izan behar du bere erakundearen aldetik unitate operatibo edo funtzional gisa, eta horrek funtzionamendua ahalbidetuko duen aurrekontu-hornidura suposatzen du.

b) Liburutegi espezializatuak baliabide kulturalen bilduma bat izan behar du, informaziozkoa edo ezagutzazkoa, identifikatua eta antolatua. Baliabide horiek argitaratuak edo argitara eman gabeak izan daitezke, bibliografikoak, dokumentalak...; kanpokoak izan daitezke edo barne-jardueren ondoriozkoak, lan-dokumentuak, erakundeek osaturiko txostenak edo azterlanak, soinu-erregistroak, ikus-entzunezkoak, datuen erregistroak, edota erabiltzaileen ezagutzarako interesgarria izan daitekeen beste edozein eratako informazioa.

c) Liburutegi espezializatuak zerbitzu bibliografikoak, dokumentaziozkoak eta informaziozkoak eman behar dizkie beren ardura duten erakundeei edo/eta beren erakundez kanpoko beste erabiltzaileei.

d) Langile kualifikatuak egon behar dute, liburutegi espezializatu bati berez dagozkion eginkizun teknikoak betetzen dituztenak eta hari dagozkion zerbitzuak ematen dituztenak.

TXOSTENA, LIBURUTEGI PUBLIKOEN GALDETEGIA LIBURUTEGI ESPEZIALIZATUENTZAKO DATUEI APLIKATZEKO EGOKIA OTE DEN

Batzordeak erabaki zuen liburutegi espezializatuak datuen bilketa erraztea, liburutegi publikoetako datuen bilketaren galdeketa horretarako baliatuz. Epigrafe guztiak berrikusi ziren, eta liburutegi mota honen ezaugarriak islatuko zituzten aldaketa batzuk egin ziren.

Txosten honetan, abiapuntu gisa gomendatzen da liburutegi espezializatuaren tipologia desberdinak jasotzen dituen sailkapen on bat izatea, eta mintzatu gara gorago txosten horretaz; berebat gomendatzen da liburutegi espezializatuaren gaikako sailkapen on baten gainean jardutea. Auzi horixe ari gara lantzen batzordeko azken txostenean.

Galdetegi hau gure liburutegiei aplikatu ahal izateko gomendioek oso eremu zabala hartzen dute. Esate baterako, dokumentuak formatuaren arabera definitzea (papera/analogikoa edo elektronikoa); erabilerak eta erabiltzaileen arabera, oso desberdinak, nolako liburutegia den; dokumentuak elektronikoki hornitzearen garrantzi handia ere aztertzen da, ez bakarrik partikularren kasuan, baita liburutegien arteko mailegu gisa ere, liburutegi unibertsitarioen modura. Bestalde, erabiltzaileei ematen

zaizkien zerbitzuen gaineko datuak jasotzean, bereizi behar lirateke barrukoak eta kanpokoak, haiek hobeto ezagutu ahal izateko. Faltan sumatzen dira galdetegian sare sozialen bitartez eskainitako zerbitzuak ere.

Aurtengo urtean, 2014an, gaikako sailkapen bat ari da lantzen Liburutegi Espezializatuen LBT. Azterlan honek osatuko du batzordeak Espainiako egoeraren panoramika bat izateko xedez antolatu zuen lan-zikloa, era horretan gure liburutegietako erroldak osatu eta datuak jaso behar dituzten administrazioen lana errazteko. Ziklo hau gorago aipatu den Espainiako liburutegi espezializatuen diagnosi-txostenarekin hasi zen, ondoren liburutegi espezializatua izateko behar diren baldintza minimoen txostena etorri zen, eta, azkenik, liburutegi espezializatuen gaikako sailkapena dator.

Hiru txosten horiek dira administrazioek beren lanaren oinarritzat eduki behar dituzten zutabeak, gure liburutegien errealitatea ezagutu eta haien ikusgaitasuna eta garapena bultzatzen duten lankidetzaren eraginkorrak osatzeko ahalmena eduki ahal izateko. Egoera honek handitu egingo luke gizarteak gure lanari ematen dion balioa.

LANTALDEAK:

LLBren taldearen lanak ez luke atarramendu onik izango lantaldeek egin ohi dituzten ekarpen guztiz garrantzitsuak gabe. Talde hauei esker, era guztietako profesionalak egon daitezke Batzordean, beren jakintza eta esperientzia partekatzen dute eta bitarteko guztiz egokia gertatzen dira liburuzainaren lanbidearen arazoei eta kezkei irtenbideak bilatzeko.

LLBk aholkularitzarako eta babeserako lantaldeak eratzeko aukera du, liburutegien munduaren eremu guztiak hartuz, bai araudiaren aldetik, bai alderdi sozial edo teknologikoen aldetik. Abiapuntuan zituzten helburuak betetzen direnean, taldeak itxi egiten dira. Hona hemen uneotan lanean diharduten taldeak:

- 1. Espainiar liburutegiei buruzko informazio-sistema
- 2. Informaziaren alorreko afabetizazioa
- 3. Kulturartekotasuna eta liburutegietako sarbidea
- 4. Normalizazioa
- 5. Ondare bibliografikoaren katalogo kolektiboa
- 6. Liburutegi-kudeaketaren eta -lankidetzaren oinarri teknologikoak
- 7. Erreferentzia birtuala
- 8. Ondare bibliografikoaren kontserbazioa
- 9. Profil profesionalak
- 10. Lege Gordailuaren eta Ondare Digitalaren Lantaldea

Badira Plan estrategikoaren baitan sorturiko lantalde estrategiko batzuk azterlan jakinak egiteko xedez eratuak:

- 1. Lantalde estrategikoa, liburutegiek gizartean duten eragin sozio-ekonomikoa aztertzen duena
- 2. Lantalde estrategikoa, liburutegiaren gaineko prospektiba-azterketa egiteko informazio- eta gizarte-inguru berrian

Lantaldeak primerako aukera dira liburutegietako profesionalok lankidetzaproiektuetan parte hartu, eta gure ogibiderako politikak edo tresnak aztertu eta garatzeko.

Liburutegi Espezializatuen LBT Liburutegi espezializatuen sareen lantalde bat ari da osatzen. Lankidetzestrategietan tradizio duten sare horietako batzuek, esate baterako defentsako liburutegien sareak, batzordean parte hartzeko eskaera egin zuten; lantaldea da parte hartzeko biderik hoberena. Talde hau eratzea garrantzi handikoa iruditu zitzaigun, sare hauen ordezkariak batzordearen bileretara etorrarazteko, eta, aldi berean, esperientzia irabaziko genuen gure lanerako, komunikazio-bide bat zabalduko genuen liburutegi espezializatu askorekin, eta lehen eskuko argibideak izango genituen haien egoeraz eta premiez.

Liburutegien munduak bere burua ordezkatzen duen organo bat ikusi behar du Liburutegien Lankidetz Batzordean, bere arazoak ezagutzen dituen, liburutegien arteko elkarlana erraztuko duena, eta gure herrialdean burutzen diren lankidetzakimenak zabaltzeko bidea izango dena.

Bibliografia

Carrato Mena, María Antonia: «Cooperación bibliotecaria para un acceso global al conocimiento», *El profesional de la información*, 2010 (iraila-urria), 19. lib., 5. zkia., 449-454.

Rodríguez Parada, Concepción: «Bibliotecas: el largo camino del estado natural a la cooperación», *El profesional de la información*, 2010 (iraila-urria), 19. lib., 5. zkia., 457-461.

Jornadas de Cooperación Bibliotecaria, 2008. Jaca, martxoak 11, 12, 13.

Webgune honetan eskura:

http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/dms/mecd/cultura-mecd/areas-cultura/bibliotecas/mc/consejocb/grupos-de-trabajo/1/GT_Normativa_Legal_2008.pdf
[2014ko maiatzaren 10eko kontsulta]

«España. Ley 10/2007, de 22 de junio, de la lectura, del libro y de las bibliotecas», *Boletín Oficial del Estado*, 2007ko ekainak 23, 150. zkia., 27.140-27.150.

Webgune honetan eskura:

<http://www.boe.es/boe/dias/2007/06/23/pdfs/A27140-27150.pdf> [2014ko maiatzaren 5eko kontsulta]

«España. Real Decreto 1573/2007, de 30 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento del Consejo de Cooperación Bibliotecaria», *Boletín Oficial del Estado*, 2008ko urtarrilak 1, 1. zkia., 7-12.

Webgune honetan eskura:

<http://www.boe.es/boe/dias/2008/01/01/pdfs/A00007-00012.pdf> [2014ko maiatzaren 5eko kontsulta]

Consejo de Cooperación Bibliotecaria

Webgune honetan eskura:

<http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/bibliotecas/mc/consejocb/presentacion.html> [2014ko ekainaren 4ko kontsulta]

VII Arte Garaikideko Dokumentazio Zentroen Topaketak

Hitzaldia: Carmen Bouzas Caamaño

Consejo Superior de Investigaciones Científicas

Webgune honetan eskura:

<https://bibliotecas.csic.es/calculador> [2014ko ekainaren 16ko kontsulta]

Comisión Técnica de Cooperación de Bibliotecas Especializadas del Consejo de Cooperación Bibliotecaria

Webgune honetan eskura:

<http://www.mecd.gob.es/cultura-mecd/areas-cultura/bibliotecas/mc/consejocb/comisiones-tecnicas-de-cooperacion/especializadas.html> [2014ko ekainaren 17ko kontsulta]